

Nafarkaria

• ostirala • 2002ko ekainaren 7a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Erronkari • Zuberoara joaten ziren espartingileen bidea eginen dute bihar, martxa batean • **3**

Javier Arbizu • «Nire lana hausnarketarako gunea izatea nahi izan dut» • **7**

Euskaraz taulara

Helduentzako euskarazko antzezlanak soilik eginen dituen Iruñeko lehendabiziko taldea sortu da. Bele Bizi izena du, eta dagoeneko Ke-takoiak bere estreinako lana hiru aldiz eskaini du. Jaiotze honek, udaberrian gaudelako edo, bat egin du euskarazko beste hainbat emankizunekin. Oso denbora tarte laburrean, anitzetan igo da euskara taulara. Ez da urte osoan geratzen denaren erakusgarri, baina pozgarria, behintzat, bada.



Lizarra • Adio gaztetxeari

Asteartetik asteazkenerako gauean eraitsi zuten gazteek okupatuta zuten eraikina

Gazteek ezin izanen dute egunotan betetzen zen seigarren urteurrena ospatu. Aste honetan bertan eraitsi dute 1996. urtean Lizarrako Gazte Asanbladak okupatu zuen armadaren koartela. Gazteek topagunerik gabe gelditu dira.



Hondeatzeko makinek asteazkenean bukatu zuten Lizarrako gaztetxearen sei urteko historia.
● LANDER F. ARROIABE / ARGAZKI PRESS

A STEARTETIK ASTEAZKENERA-ko gauean kanporarazi zituen Goardia Zibilak gaztetxean lotan ari ziren bost gazteak. Goizaldeko 4:30ak ziren. Armadako kuartela zaharra eraisteko agindua jaso zutenetik gazteek eguneko 24 orduak ematen zituzten gaztetxean, txandatan, eraisketa lanak noiz hasiko zain. Eta lanak hasi ziren eta bukatu ere bukatu dira. Asteartean goizeko 8:00retan hasi ziren armadako

kuartela izan zena botatzen eta asteazkena ilundu aurretik amaitu zuten eraikinaren eraisketa. Egunotan hondakinak biltzen emango dute langileak. Gerora lur sail horietan igerilekuak egiteko asmoa agertu du Udalak.

«Atean soinuak entzun genituen eta bat-batean behera bota zuten atea. Polizia sartu zen eta kanporatzen gintuzten bitartean gure datuak bildu zituzten. Gerora gure gauzak

hartzen utzi zizkiguten» gogorari du Lizarrako Gazte Asanbladako kide batek. Eraikina eraitsi zuten egunean zehar gaztetxera sartzen saiatu ziren gazteak, behin eta berriro, baina ezin izan zuten Guardia Zibilen presentzia nabaria biltzen. Gauean ere, 22:30ak aldera, manifestazio bat abiatzeko asmoa zuten gazteek baina ezin izan zuten aitzina egin poliziak martxa eragotzi zuelako.

«Kanporaketa agindu ilegal»

Lizarrako Gazte Asanbladak maiatzaren 16an jaso zuen eraikina uzteko agindua. Espainiako Defentsa Ministerioa da eraikinaren jabea eta bertatik etorri zen agindua. Gazteen ustetan, aldiz, kanporaketa agindua epaitegi judizial baten bidez baino ezin zen etorri. Astelehenean Iruñeko 2. Epaitegi Administrazioa okupatuta zegoen eraikinera sartzeko baimena eman zion Defentsa Ministerioari eta, ondorioz, asteartean bertan hasi ziren eraisketa lanak. «Gu kanporatzeko erabili duten bidea ez da legala izan, okupatuta genuen eraikinetik botatzeko ordenu judiziala behar baitzen» azaldu du gazte batek.

Lizarrako Gazte Asanbladak 1996. urteko ekainean okupatu zuen hiru urte lehenago Espainiako Armadak utzi zuen kuartelaren zati bat. Azken sei urteetan erabat zaharrituta zegoen eraikina zaharberritu eta ekitaldi aunitz egin dituzte bertan. Gazteak ez ziren eraisketaren aurkakoak, beti ere, bertze irtenbide bat ematen bazitzaien, bederen. «Ez digute inolako irtenbiderik ematen, karrikara bidaltzea ez bada» diote gazteek. Ildo horretan, aspaldian eraikitzen hasi zen ustezko gaztetxearen lanak erabat geldituta daudela ere salatzen dute.

Gaztetxearen seigarren urteurrena ospatu beharra zuten gazteek egunotan. Ezin izanen dute, ordea, urtebetetze jaialdia egin. Alta, protesta ekintza aunitz iragarri dituzte datozen egunotarako. Gazteek, adio erran behar izan diote azken urteetako aterpeari.

→ Kristina Berasain

Lizarra

Bihar jasoko du Satrustegik Irujo saria

Lizarrako Irujo Etxea elkarteak bihar emanen dio Jose Maria Satrustegi antropologoari Manuel Irujo saria. Arruazuarrak Jean Haritxelhar euskaltzainburuaren lehendakariaren eskutik jasoko du. Manuel Irujo saria iaz abiatu zuten, eta Jose Maria Jimeno Jurio historialariak jaso zuen lehenbizikoz.

Sari ematea 12:00etan hasiko da, Koroapen plazan egingen den harrera ekitaldiarekin. Bertan, aurrekua dantzatuko dute. Jarraian, saria emanen diote Satrustegiri, Julian Romano Musika Eskolan. Bertan, Lizarrako Ereintza abesbatza ariko da. Ekitaldi ofiziala amaituta, bildutakoak Santiago plazara abiatuko dira, kalejiran. Irujo Etxea elkartearen egoitzaren inguruetan txistor jatea egingen dute. Gure Geroa elkartearen ospatuko den herri bazkariarekin amaituko da jaiak.

Irujo Etxea elkarteak apaiz arruazuarrak egindako lana goraiatu nahi izan du sari honen bidez. «Jose Maria Satrustegi gizon aparta izan da, Nafarroako historia sakonki ikertu duen historialaria. Berak egindako lanak gure lurraldean arrotz ez sentitzeko balio izan digu», adierazi du Koldo Viñuales elkartearen lehendakariak. Ildo horretan, ikerlariaren ibilbidea eta euskararekin zein euskal kulturarekin izan duen konpromisoa goraiatu dute.

Satrustegik Irujo Etxeko elkartearen anagrama den egurrezko seiburua eta Manuel Irujoren irudia zizelkatua daraman urrezko domina jasoko du.

→ Kristina Berasain

irulegitik

JOJO BIDART



H auteskunde kanpaina hitsa bizi izan dugu orain arte Iparraldeko hiru bozka eremuetan. Presidente hauteskundeek sortua zuten harridura eta beldurra pasatu ondoren, ultra eskuinak indarra erakutsi eta duen hein hortan atxikia izan eta gero, jendeen kalipua berriz galdu dela iduri luke.

Erran ziguten bai egiazko hautu politikoa, funtsezko debata, Gobernuari gehiengoa eman behar duten deputatu hauteskundeekin agertuko zela. Baina proiektu zabalik, debate suturik, ez eta bihotzak berotzen dituen mugimendurik ez dugu nihun senditzen, ez Frantziaren, are gutiago gure eskualdeko hiru probintzietan.

Alta ez dira hautagaiak eskas, baina jendeen interesa

Hauteskunde motelak

hautagaien zerrenda luzea bezein motela da. Beharrik Iparraldeko gizartearen erdian aspaldidanik lanean ari diren elkarteak agertzen ari dira azken aste hontan. Bakotzak bere mailan, urteetan zehar tokiko jendeekin eraman den lana eta gogoeta plazaratzen du eta hautagaiak galdetuzkatzen. Autobide eta lurralde antolakuntza LEIArekin, Euskal Herriko laborantza ganbara ELBrekin, Euskal Departamendua xede federatzaile hori ekartzen duen elkartearekin, preso hurbilketa Anai Artearekin, euskararen erabilpena Euskal Konfederazioarekin eta beste...

Loalditik ateratzeko beharrezkoa ginuen inarrosaldia! Galdeak hor dira eta hautagaien erantzunak ere bai: batzuen borrokaren edo engaiamenduaren segida logi-

koa izanez, besteen momentuko ikusmolde elektoralista, dena on baita bozen biltzeko. Bozkazale bakotzak du hautua egingen.

Maleruski abertzaleen mezua interferentziaren nahasia agertzen da hiru mezulari eta hautatzeko bi izen proposatzen dutelarik bozka eremu bakotxean. Konbentzitu nahi diren jendeen argitzeko manera argiagoak beharko dira aurkitu ondoko aldiran.

Anartean hainbat urteko lanari segida emaitako oihartzun ozenena Abertzaleen Batasunetik jin daita heldu den igandean. Ondotik bi hitz horiek gauzatzeko bidea bilatu behar daita nahi bada jendeen motibazioa berpiztu.

FESTA HAU IPARRALDE ETA Hegoaldearen arteko kultur hartu-emanak sustatzeko bidean sortu zen. Zuberoan espartinen inguruan zenbait ekintza antolatzen hasi ziren orain dela urte batzuk, eta, haien ildotik, Kebenko elkarteko kideei espartinen martxa egitea bururatu zitzaion. Ekimenaren helburua, Zuberoa, Erronkari eta Zaraitzuko euskaltzaleen arteko harremana estutzea dela esan dio NAFARKARIARI Jabier Zabalak, Kebenko elkarteko kideak.

Larunbatean egingo den martxak hiru ordu iraungo du, Ori mendetik gertu dagoen Erroimendi lepotik abiatuta Larraineraino. Urtez urte, ibilbidea aldatuz joan dira, mendia eta beste bide batzuk ezagutzeko. Iristean jatekoa izango dute zain, baina ez da izango ohiko herri bazkaria; Zabalak azaldu duenez, «mahai eta aulkirik gabeko herri bazkaria izango da». Ase eta gero, Larrainerako dantza taldeak eta Beratik etorritako musika taldeak giroa alaituko dute han diren guztientzat.

Esan bezala, Zuberoarekiko lotura estutzea da martxaren helburua. Garai batean Erronkari, Zaraitzu eta Zuberoaren arteko harremana oso zabala zen, Zuberoa Iruñea baino gertuago baitzegoen merkatu eta azoketara joateko. Era berean, ezkondu gabeko neska gazte asko eta asko Iparraldera joaten ziren, espartinaren sasoian lan egiteko; udazkenean abiatu eta udaberrirako bueltatzen ziren. Espartinen martxa bezalako ekintzekin urteetan galduz joan diren lotura hauek berrindartu nahi dituzte.

Antolatzaileen asmoa espartinen martxa urtero egitea da, gero eta ezagunagoa egin dadin. Gaur egun, festan parte hartzen dutenen eta Kebenko elkartearen ekarpenekin antolatzen da martxa, baina hurrengo urteetarako Erronkari eta Zuberoako udal eta beste elkarte ba-

tzuen laguntza jasotzeko lanean ari dira.

Batez ere Erronkari ingurukoak izaten dira festa honetan parte hartzen dutenak; baina, Jabier Zabalak dioen bezala, «Bizkaiko eta Gipuzkoako jendea ere» etortzen da egun honetan: «Jende askok asteburuetan Erronkarira

etortzeko ohitura handia dauka eta halako ekintzetan parte hartzen dute». Aurten bi autobus antolatu dituzte parte-hartzaileen-tzat. Izena emateko epea aurreko astelehenean amaitu zen, baina autoz igo nahi izanez gero, martxa goizeko 10:00etan abiatuko da, Erroimendiko mendetik.

Hurrengo urteetarako gero eta jende gehiago biltzea espero dute Kebenko elkarteak. Bestalde, proiektu gehiago iragarri dituzte euskara indartzeko eta Zuberoarekiko harremana sakontzeko bidean.

→ Itziar Lumbreras

● Erronkari


Laugarren urtez, Zuberoarako espartinen martxa antolatu du Kebenko elkarteak biharko



Erronkaritik Zuberoara joaten ziren emakume espartingileen lana gogoraraziko dute bihar. ● EGUNKARIA

Oritik Larrainera espartinetan

Orain dela lau urte, Kebenko Kultur Elkarteak espartinen martxa antolatu zuten lehenengoz. Martxak garai batean Hegoaldeko emakumeek Iparraldera espartin lantegietaraino egiten zuten bidea gogorarazten du.



Burlata • Axularren kultur astea igandea arte

DUELA HAMASEI URTETIK EGITEN ARI DIREN GISARA, Burlatako Axular elkarteak ekitaldiz betetako kultur astea egiten ari da egunotan. Astelehenean hasi zen eta igandean bukatuko da.

Aurreko egunetako kontzertu, antzeppen eta hitzaldien ostean, parrandarako aukera izanen dute gaur Axularren egoitzara bilduko direnek. 20:00etan Ataitz txistu taldearen emanaldia izanen da; 21:30ean zezensuzkoa, El Soldau plazan; 22:00etan herri afaria; eta bukatzeko, 23:30ean, dantzaldia, Modesto orkestra gizonarekin.

Biharko eguna, berriz, haurrei eskainiko diete batez ere. Goizeko hamaiketan hau-

rrentzako jolas tradizionalak egingen dituzte, euskaraz. Ordubete geroago grafiti tailerra egingen dute Axularreko patioan, nahi duten guzientzako. Bazkalostean, 16:30ean, mus txapelketa jokatu dute. Eta, ondoren, bi *gynkana*, bat haurrendako (17:00) eta bestea helduendako (19:30). Aurreko egunean bezala, zezensuzkoa 21:30ean aterako da, El Soldau plazan. Hamarretan txistor jatea egingen dute, eta ordu erdi geroago, Iraulio Pantalone Band taldeak *Ai Martin!!* ikuskizuna eskainiko du, bertsolaritza eta musika uztartuz.

Igandeko ekitaldiak 09:30ean hasiko dira,

Askatasuna frontoian egingen dituzten pilota partidekin. 10:00etan eskulangintza erakusketa zabalduko dute Ermita karrikan; eguraldi txarra eginez gero, El Soldau plazara eramanen dute. 11:00etan Naspexak joaldunek, erraldoi eta kilikiek, txistulari eta gaitariak kalejira egingen dute herriko karrikan barna. Ondoren, Larratz taldeko dantzari emanaldia izanen da, eta ordu biak aldera, zikiro jatea. Kultur astea bukatzeko, Txintxarri fanfarrearen emankizuna izanen da 17:00etan.

→ Asier Azpilikueta



urda
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Jaiotza

Gaurko zutabea ibaiaren ondoan ernaldu zen, memento hartan horretaz ohartu ez banintzen ere. Egia esan zutabearen pentsatzen bainoago, ni paseatzen nengibilen. Santo Domingo aldatatik behera piraguak ontziratzeke lekura joana nintzen (Elembarkadero-ra), ibaiak erakusten zidana behatzera besterik gabe, baina ibaiak prestatua zidan arrantzale kurioso bat eta berearekin hizketan hasi eta segitu... eta gaurko artikulua bertan ernaldu zela ohartu naiz gaur.

Arratsaldea beroa eta hezea zen, eta arrantzaleak esan zidan, besteak beste, ibai bizitzaz gaindi zegoela eta arrainak harrapatzeke halako gutziak behar zituela amutzat jarri. «Neguan», esan zidan, «belar hutsarekin harrapatzen ditut, edo ogi papurrekin. Neguan gose dira zeren ez baitute jateko deus ere, eta aski da edozein amu jartzea arraina lurreratzeko. Orain, udaberrian gaudela, kontua guztiz desberdina da; orain, hor denetarik dute jateko», eta keinua egin zuen ibaiaren luzera guztia seinatuz: «...zomoroen larbak, zomorroak berak, arrainen arrabak, apo eta igelen arrautzak... beraz gutzia bat, luxuzko amu bat, prestatu behar dut beren ahoetan sartzea nahi badut, eta, beraz, artoa eman behar diet, arto egosia», eta Eroskiren arto lata txikia erakutsi zidan, eurotan zenbat zen pegatina eta guzti zeramana.

Egia esan ibai bizirik zegoela begien bistakoa zen. Aurretik esan dut beroa eta hezea zela arratsaldea, argisua ere bazen, eta ibaiaren azal geldian bitxoek zirkuluak behin eta berriz hazten, hedatzen eta desagertzen ziren, han eta hemen, zientoka. Arrainak jaten ari ziren, etengabe. «Gero ekaitza etortzen da, eta uharrak, ur piloa, indartsua, kristoren korrontearekin, eta ibai hustu egiten da, dena berearekin eramaten du urak, barrenbarrendik garbitzen du (arrainak ez noski!!), eta bi egunez, berriz bizitz betetzen den artean, neguan baleude bezala bizi dira arrainak, jajaja!, goseturik, eta orduan hartzen ditugu esku-beteka».

Eta honekin eta bestearekin horrela joan zitzaigun arratsaldea. Gero, hurrengo eguna igaro zen, eta beste bat, eta bestetzuk (gauk barne), eta indio batek esango lukeen moduan, «hainbat eguzki eta ilargi igaro ziren», gaur arte. Eta gaur da eguna non ibaiaren ondoan ernaldu zen artikulua hura jaiotzen den ●

HAINBESTE EMANKIZUN HORREN DENBORA tarte laburrean... Nafarroako euskarazko antzerkigintzaren osasun onaren erakusgarri?, ala, bestela? Aitor Txarterinari eta Reyes Ilintxetari galdetu die NAFARKARIAK; ipuin kontalaria eta idazlea lehena, antzezlea eta gaztetxoan zuzendaria bigarrena.

Txarterinaren argiak eta ilunak ikusten ditu Nafarroako euskarazko antzerkigintzan. «Argiei dagokienez, harrobi aldetik inoizko egoerarik hoberean gaude», erran du. «Ikastetxe anitzetan dituzte antzerki tailerak, eta horrek harrobia bermatzen du. Baina, bertzenaz, eskaintza oso urria da: Antton Lukuren taldea, pare bat talde Bortzirietan, eta Bele Bizi. Eta deus gehiago ez».

man... Dena dela, institutuaren garai hobeak ere izan dira. Izan ere, irakasleek beraiek ezin dute bere gain hartu antzerki tailerra zuzentzeko lana. Kanpoko jendea kontratatu behar dute. Eta esperientzia, gogoia, denbora eta prestutasuna duen jende gutxi dago. Horregatik, antzerki gutxi dago gaurko institutuetan. Hala eta guziz ere, sendotu egin dira talde batzuk: Berakoak, Lizarra eta San Fermin ikastolakoak eta Iturrama institutukoak».

Harrobi sendoa omen dago
Sendotze horren erakusgarri ditugu aurten lehenbiziko aldiz Iruñean egin diren gazte antzerkiaren topaketak. Ekimenak oso harremanak izan du eta bi emanaldietan lepo



Udaberri honetan ugari izaten dira euskarazko antzerki emanaldiak

Udaberriko azken asteotan euskarazko antzerkiaren antz ikusteko aukera izan dugu: Antton Lukuren 'Lurra', Bera eta Iruñeak eta gazte antzerkiko topaketak, eta Bele Bizi talde sortu berriaren 'Ke-takoiak' baretan, besteak beste. Gaur bertan 'Izar Hotsa' planetario ibiltariaren euskarazko bertsioa estreinatuko dute Etxarri-Aranatzen.

dea. Talde batzuetan antzezleek ez dakite euskaraz, eta, hala ere, euskaraz antzeztzen dute. Hortaz, badira oso lan txukuna egiten dutenak, baina baita desastre hutsak ere.

«Mugimendua badago»
Eta helduei zuzenduriko antzerkiari dagokionez, Ilintxetak «fenomeno interesgarria» ikusi du, «bereziki udaberri honetan».

ko antzerkia egin nahi duen eta profesional izan nahi duen taldea. «Interesgarria da, bizia, freskotasunez beteta, eta teknikoki oso ongi landua», dio.

Ke-takoiak Nafarroako Antzerki Eskolako Iruñeko Udalarekin batera programatzen duen Antzerki Aroaren azken lana izan da. Ziklo horretan hileroko euskarazko antzeztan bat ematen saiatzen dira. Txarterinaren eta Ilintxetaren aburuz, aurtengo edizioa «eskasa» izan da, «triste».

«Hor bada saltsarik», adierazi du Ilintxetak. «Izan ere, asmoa ona da, baina aurrekontu mugatua dute, eta euskarazko helduentzako antzeztan ez dira kopuruz mugagabeak. Aurten, hala hola joan da zikloa

ikusleen aldetik, sobera erakargarriak ez ziren bizpahiru lan jarraian eman zituztelako. Agian, datorren urterako berriz planteatu beharko dute zikloaren funtsa; eta hainbeste muntaketa ekarri beharrean, gutiago ekarri, baina kalitate handiagokoak. Eta, jakina, promozio handiagoa egin. Promoziorik gabe zaila baita publikoak antzerkira eramatea».

Formatu ttikiko lanak
Bele Biziren proiektuko kide da Txarterina, berak idatzi baitu *Ke-takoiak* antzeztanaren testua. «Euskaraz Nafarroan bizi duen egoera ikusita, ekarpen garrantzitsua da gurea. Bele Bizik erakutsiko du posible dela honetan profesionala izatea. Oraindik ez dugu inbertsioaren ordaina bildu. Baina lortuko dugu, merkatua bai baitago».

Ke-takoiak antzeztan ez du muntaketa handirik behar: bi antzezte eta bionbo beltz batzuk. «Formatu ttikiko lanak aurrera ateratzen ari dira, bakarriketa umoretsuak kasu», aipatu du Ilintxetak. «Errazagoa baita horre-

lako lanetarako antzeztokiak aurkitzea. Nafarroan ez dago muntaketa handietarako azpiegitura askorik. Eta zertarako egin muntaketa garestia gero ezin eskaintzeko?».

«Euskaldunak non bizi dira?», galdetu du Txarterinaren. «Hiriburuetan sakabanatuta eta herritxoetan. Bada, emankizuna mendi puntaraino eramanez behar baduzu, muntaketa ttikia izatea hobe da». Muntaketa ttikia ala handia izan, taldeak egin behar du inbertsioa. Eta euskarazkoen kasuan, gutitan bermatzen da errentagarritasuna. Eta erakundeek laguntzarik ez badago, taldearen bizkar gelditzen da zama.

«Laguntza penagarria da», ondorioztatu du Txarterinaren.



Berako Ricardo Baroja ikastetxeko ikasleak Gure kalea interpretatzen. ● JON ABRIL

«Badira laguntza fosilizatu batzuk, antzeztan muntaketa eta azpiegiturarako, baina auskalo nork eramanen dituen», aipatu du Ilintxetak.

«Misterioa da», Txarterinaren.
«Bai, Obanoskoa», Ilintxetak.

→ Asier Azpillikueta

Euskarazko antzerkigintzaren loratzea

Ilintxeta harrobiaren kontua aztertzeari lotu zaio lehenbizi, hobekien ezagutzen duen mundua baita: «Oso garrantzitsua da ikastetxeetan egiten den lana: lanak idatzi, muntatu, zuzendu, haurrak harat eta honat era-



Hiru puntu taldearen Lurra antzeztana.

● EGUNKARIA

bete da Iruñeko Erraldoien Txokoa. «Oso inportantea da harrobiko lan hori gizaratzea», gaineratu du Txarterinaren. «Ez bakarrik lan horiek ikastetxeetan egitea, baizik eta ahalik eta leku gehienetara heltzea».


«Institutuaren lan bikoitza egiten da: batetik, ikasleei erakusten zaie nolako den aktore, teknikari eta antzerkigile lana. Eta, bestetik, publikoak ere hezitzen da. Gazte gehienek institutuaren ikusten dute beren lehenbiziko antzeztana. Gustatzen bazaie, zaletzen ahal dira. Beraz, ongi egin behar dira antzeztan horiek, antzerkira joateko ohitura har dezaten».

Haurrei zuzenduriko antzerki lanei dagokionez, aukera zabala dagoela erran daiteke, Nafarroako antzerki talde guzietan beren gaztelaniako lanen euskarazko bertsioa egiten baitute. «Lehenago soilik gaztelaniaz egiten zutenek, orain euskaraz ere egiten dute», azaldu du Ilintxetak. «Argi ikusi baitute merkatua bada goela».

Birziklatze horrek badu alde ilunik, or-

Aitor Txarterina

IPIUIN KONTALARIA ETA IDAZLEA



● JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

«BIZKAITIK ETORRI NINTZEN duela zenbait urte oraindik bukatuak ez ditudan Soziologia ikasketak egitera. Halako kultur kezka nuenez, antzerki munduan zer edo zer egin nahi nuen. Banuen zirkulu bat muntatzeko aukera. Baina elefanteak nondik ekarri, Afrikatik ala Asiatik, erabakitzeko zaila zenez, NAE oinarriko ikastaroa egin eta gero, ipuin kontalari hasi nintzen 1997an. Lehenengo emanaldiak euskaraz eta gaztelaniaz eskaini nituen, baina borzgarrenetik aitzina, ez dut berriz kontatu gaztelaniaz. Euskaraz eta helduendako oso merkatu zabala dago. Heldu den ostegunean, Donibaneko Irritzari euskaltegian izanen naiz.

Baina ipuin kontalaria izateaz gain, antzerki testuak ere idazten ditut, ergo, idazlea naiz. Birritan aurkeztu nintzen Nafarroako Antzerki Eskolako antolatzaile hurrendako antzerki testuen lehiaketara eta bietan irabazi nuen. Duela gutxi, Bele Bizi talde berriaren *Ke-takoiak* helduendako antzeztana idatzi dut».

Di-da batean

NAFARROAN EGITEN DEN EUSKARAZKO ANTZERKI eskaintza ez da sobera handia. Aitarien batean aztertzen ahal da. Ttikia izanagatik ere, kanpoan inor gelditu bada, barka dezala ahanztura.

Gazteenetik hasita, haurrei zuzenduriko euskarazko antzerkian badago eskaintzarik; Nafarroako ia talde guzietan gaztelaniako beren obren euskarazko bertsioa baitute. Baina bertsioak direnez —eta ez jatorrizko lanak— eta zenbaitzuetan euskaraz egiten duten antzeztak euskaldunak ez direnez, kalitate maila guzietako lanak ikusten ahal dira.

Bestalde, Nafarroako ikastetxe anitzetan antzerki tailerak dituzte, eta horrek etorkizunerako harrobia ziurtatzen du. Esparru honetan, aipatzekoa da **Xabier Diaz de Esarte** idazleak Iruñeko udal ikastolaren hiru zentroetan egiten duen lana. Baina badira beste hainbat ere.

Nafarroako antzerkigintzaren harrobiaren erakusgarri, iragan bi ostiraletan Euskarazko Gazte Antzerkiaren lehen topaketak egin zituzten Iruñean.

Bertan 12 eta 18 urte bitarteko ikasleek hiru antzeztan eskaini zituzten: **Iturrama** Institutuaren *Ez da hain Erraza*, **Lizarra** Ikastolaren *Esnatzeak II* eta **San Fermin** Ikastolaren $X+x+2x=10$ gazte. Hiru hauek maiatzean Beran egin zen Mugaz Gain haur eta gazte antzerki jaialdiaren zortzigarren aldia ere izan ziren. Beraiekin batera, Berako Labiaga, Ricardo Baroja eta Jesusen Bihotza, Lesakako Tantarumairu, eta Irurtzungo Atakondoa ikastetxeetako ikasleak aritu ziren. Orotara, bederatzita antzeztan.

Helduentzako eskaintza, eskasagoa

Helduei zuzenduriko antzeztalanei dagokionez, ordea, eskaintza urriagoa da. Nafarroa Behereko **Antton Luku** idazlearen **Hiru Puntu** taldeak erreferentzia izaten segitzen du; Iparraldeko eta Hegoaldeko antzerkigintzaren arteko zubia da nolabait. Martxoan bere azkeneko lana estreinatu zuen, *Lurra*. Hiru

Puntu talde berrak da, baina dauden artean, prototipoa.

Bortzirietan beste bi talde amateur: **Berakoiak** eta Lesakako **Mairu**. Lan 1992an sortu zen; euskaraz eta gaztelaniaz egin ditu antzeztan, hain zuzen helduendako. Eta, gainera, ikastaro antolatzen ditu antzeztasuna zabaltzeko aldera. Lesakako taldeak, bestalde, euskarazko bertsioa egin ditu.

Eta orain, **Via Albira** aktorearen eskutik, **Bizi** taldea sortu da Iruñean, helduentzako euskarazko antzerki egiteko. Bizi talde gutxi estreinatuko du bere lana, kabaret kutsuko *Ke-takoiak* lanetan Albira bera eta **Lur** taldea, **Isabel Aizak** zuzenduriko **Aitor Txarterinaren** idatzi duen *Ke-takoiak* baretan.

Aipatzekoa da, NUPeko bakarriketan lehen irabazi zuen **Mikel Mike** aktoreak laster estreinatuko duela bere bakarriketa euskaraz.



Goian Iturramaren Ez da hain erraza obra, ezkerrean, aldiz, Mairuren Trizikloa antzeztanarena.

● EGUNKARIA


Azkenik, **Carlos Piñuelak** zuzentzen duen *Izar Hotsa* estreinatuko dute gaur, Etxarri-Aranatzen. Planetario ibiltari honetan **Izaskun Mujika**, **Edurne Rankin**, **Elena Galaz**, **Jon Barbarin** eta **Luis Argiñariz** aktoreek izarren inguruko mito eta kondairen berri emanen dute, 19:00etan eta 20:30ean.



● MAIRU ANTZERKI TALDEA

Reyes Ilintxeta

ANTZEZLEA ETA GAZTEEN ZUZENDARIA




● JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

«IRUÑEKO Principe de Viana institutuko taldean hasi nintzen antzerkiaren munduan. Institutuaren eman nituen lau urteetatik azken hiruretan izan nintzen taldean, eta handik ateratakoan antzerkigintzan segitu nahi nuen, beste batzuekin batera Aedos taldea sortu genuen. Bizitza laburrekoa izan zen. Baina laster, Xahutondo taldea sortu genuen. Hainbat sari irabazi ditugu, eta urtero muntatu dugu antzeztanaren bat; gaztelaniaz betiere. Taldea orain egoera estarian dago.

Antzezte lanaz gain, duela hamar bat urte, Xahutondoko bi kideekin, Iruñeko Iturrama institutuaren antzerki lantegi bat zuzentzen hasi nintzen —Gurutze Plazan, Ermitagañan edo Irubiden zeudenen antzekoa—, ikastetxea oraindik ere elebiduna zenean. Hiru muntaketa egin genituen, euskaraz eta gaztelaniaz. Utzi genuen, eta duela bost urte ni deitu ninduten berriz euskarazko antzerki lantegia egiteko. Orain *Ez da hain erraza* izenburuko lana antzeztan ari gara».

Saltzailea bere bakardadean

Karibea. Astelehen goiza. Azken bi orduotan lantokian, Unzuko etxeko tresna elektriko- en sailean, bezero bakar bat ere ez. Kirol saileko saltzaile bi ondoan dauzkat: Espainiako selekzioaren bezperako partidaren grabazioa ikusten ari dira zortzi buru, abiadura handiko birbobinatua eta euro-konektorea dituen bideoan —marka ez dut aipatuko debaldeko publizitatea ez egite aldera, baina ona da: *Monte Carlotik* irakurtzen duela aipatzen didan bezeroari 199 eurotan utziko diot—. Pantailan **Jose Antonio Camacho** aulkitik aldentuta zutik ageri da, oiuhu batean, besoak altxatuta, besapeetako orban zabal, ilun, likatsua agerian uzten dizkion keinu. Karibeko, Markinako, mundu osoko limoi basatiak ez lirakeke aski izanen 'España!' izeneko herri honetako hautatzailearen besapeen funfuria gerarazteko. Ufa.



● GORKA BILBAO

'Miguelon' Indurain.



● CRISTINA ABADIA

Arazuriko zerri lasterketa.

sortzez garbiaren antzik handiena duena haserre mintzatu zait: «Zu ere selekzioaren alde, Lacasta. Pozten naiz» —Lakasta c-z ahoskatzen duela nabari da—.

Done Saturdi. Iñaki Gabilondok paleoantropologo burutsuaren elkarriketa burututa, **Roberto Gomarak** Saide enpresako kartelera irakurtzeari ekin dio. Gehiegi. Irratia itzali eta egunkaria zabaldu dut. Kirol saileko saltzaile cerverazale-camachozaleak bazter batean utzitako Cordovillako tabloidea da. Zutabe batean topatu albisteak aho bete hartz utzi nau. Done Saturdiko apaizak Euskal Autonomia Erkidegoko apezpikuen adierazpenaren alde egin

zuen igandeko goizeko hamaiketako mezako predikuan, eta fededunak matxinatu zitzaizkion «Ebanjelio! Ebanjelio!» oihukatuz. Hitz bitan, ikaragarria. Berriro ere «Ona, hi, ona!» irten zait erraietatik, **Fernando Sebastian** artzainaren ardien zintzotasunarekiko miresmen aitorten modura. Une horretan, baina, Esloveniako selekzioa da zintak abiadura handian birbobina ditzakeen bideoan gola sartu duena. Lankideek ziritzat hartu dute nire adierazpena: «Lacasta, gero eta intoleranteagoa zara». Nago 'intolerante' diotelarik 'intolerable' esan nahi dutela. Martxa honetan nigan gaztaro abertzaleko Espainiako selekzioaren aurkako jarrera galdua berpiztea lortuko dute.

Atapuerca. Bakarrik sentitu naiz. Irratia piztu dut, konpainia bila. Hamar minutu behar izan ditut hogeitaurresin-toniadun irrati digitaletan SER irrati katea topatzeko —Monte Carlotik irakurtzen duela esaten didan bezeroari ez diot irrati hori salduko—. **Jose Luis Arsuaga** paleoantropologoa elkarriketatzen ari dira. Atapuercako kobazuloetan egiten du lan. Bere altxorrik preziatuena neanderthal baten kasketurra da. Kope-ta eta mutur luzedun, itxura ez oso az-

kardun koitadua **Miguelon** bataiatu du, Atarrabiako txirrindulari homonimoaren omenez. Burutazioa entzun dudalarik «Ona, hi, ona!» atera zait barren-barrenetik. Ez nuen espero halako ateraldirik paleoantropologo batengandik. **Ansuategi, Barcina, Sanz...** Arazuriko txerri lasterketetan ez dute sekula izendapen hoberik asmatu. Une horretan bertan, baina, zortzi burudun bideoan, Espainiak gola sartu du. Kirol saileko lankideek pozik hartu dute nire adierazpena. **Santiago Cervera** kontseilari



panpilonia zirkus

Aitorreko jaialdia

Zuberoako zamaltzainak Redingo alda-pan dantzatu baino lehen, diskoteka txikiago batzuk arrunt entretenigarri gertatu zitzaizkien hiriko gazteei —Indatxikiako Txikia (Catachu ondoan) eta Nabarrerriako Disco Club 29— eta aurretik, aldiz, Aitor zinetokia izan zen dantza egiteko lekua.

Maria Inmaculada ikastetxeko neskek, hau da, Servicio Domesticokoek jokabide irekiak agertu izanaren fama izan dute beti, berritasunei atek irekiz, eta, konparazio batera, batxilergoko seigarren maila hartako neska ikasle haiek antolaturiko kantu jaialdiak sekulako arrakasta izan zuten. Garai hartan, Europa aldetik etorritako modari jarraikiz, musika talde modernoak izugarri ugaltu ziren, asunak Ziudadelako fo-soetan baino askoz ere gehiago.

Horrela, neskek hiriko talde aipagarri- netako batzuk bildu zituzten: Los Breks, Los Japes, Los Tungs, Los Condes eta Javier Diaz. Azken hori, egia errateko, ez zen taldea, kantautore gisakoa baizik, eta bere kantuak ez zetozen bat jaialdi zaratatsuekin, biharamuneko kronikek aipatu zuten. Bi kantu besterik ez zituen eman: *Corazón de Poeta* izeneko, lehen- biziko aldiz abestua, eta, bestea, *Madeleine*, biak Frantziako usadio melodikoaren barnean.

Los Breks punta-puntako taldea zen urte haietan. Musikari gehienek bezala, ile motza zuten, ongi orraztua, bizarrik ez, behar bezala jantzita eta ye-ye itxurarik gabe. Breks taldekoek eta besteek ere modako taldeen kantuak ematen zituzten: Los Bravos, Los Brincos,

● SAN FERMIN IKASTOLA

Enrike Diez de Ultzurrun



Los Breks aspaldiko musika taldea.

The Beatles eta halakoenak. Javier Diazek izan ezik, gainerakoek, nola ez, urpeko horiarena eman zuten. Tartean bazen haiek sortutako doinu eta letrarrik ere.

Bada, Maria Inmaculadako neskek dena txukun antolatu eta Arrosadiako Aitor zinetoki hura goraino bete zen. Jendea ere ba omen zen pasabideetan zutik. Jaialdia hamaika eta erdietan hasi zen, baina kasu, goizeko hamaika eta erdietan, ezin zen bestela izan, jakina. Jendeak ederki pasa zuen, biharamuneko egunkariari jaramon egitera, behintzat: «Ikusleek berriz ere erakutsi zuten konfiantza osoa merezi dutela. Izan ere, ikusleak jarraitzen zaizkio behin-betikoa iduri duen ildoari, erran nahi baita, benetako alegantzia, oihuak eta txaloak purrustadan, baina... pero sin rozar el gamberrismo. Que siga así.»

Beraz, dena garbi, aratz, makulurik gabe, eta, gorabeheren artean, zer kontatuko eta ikusle bati gertatu zitzaiona, hots: «*Bitxikeria gisa aipatuko dugu fan (sic) batek, mastekatzen ari zen txiklearen iren-tsi zuela, gogokoen zuen taldea oihuz animatzerakoan.*»

Javier Arbizu

MARGOLARIA

«Nire lana hausnarketarako gunea izatea nahi izan dut»

SARIA JASO AURRETIK SOLASTA-tu gara margolari gaztearekin. Urduri dago. Eta pozik. Alta, ikasten jarraitzeko eta lanari ekiteko indarra dira Javier Arbizuren dohain agerienak. Gogoz blaituta dago, barruan daraman hori noiz islatuko duen zain.

■ **63 lan aurkeztu ziren lehiaketara eta 20 aukeratu zituzten hasiera batean. Azkenean, zurea garraile.**

Bai iaz ere bertze lagun batekin egindako lana aukeratu zuten. Aurten ez nuen uste nire lana aukeratu zutenik ere, eta aukeratu zutela jakin nuenean anitz poztu nintzen. Hori nahikoa zen, baina aurreneko saria eskuratzea izugarria izan da. Pozik nago oso.

■ **Nolakoa da eskuratu duzun sariaren atzean dagoen margolana?**

Rafaelen bozeto batean oinarrituta dago. Cinquecentoaren garai historikoaren hurbilketa da, nolabait. Lana hasiera batean oharkabean pasatzen da, eta haren benetako mezua ikusteko, gelditu egin behar duzu. Gelditu, so egin eta hausnarketa egin. Pixkanaka-pixkanaka, ageriko lerro beltzetatik gauza gehiago agertzen dira: aurpegi bat, zenbaki batzuk...

■ **Ikuslearen arreta piztu nahi izan duzu, orduan?**

Bai, jendea lanari so gelditzea nahi nuen, hausnarketa egiteko. Lana esperimental da oso; lan psikologikoak indar gehiago du koadro honetan, lan teknikoak baino. Irudiaren inguruan dagoen espazioa irakurri behar baita lana oso-osorik ulertzeko. Nire ustez, estereotipo asko dago pinturaren munduan, bizitzako bertze arloetan bezala, eta hori triste da. Nire ustez, inolako aurreiritzirik gabe joan beharra dago artelanak ikustera.

■ **Tutto sfumato. Izen bixia, ezta?**

Bai. Koadroaren zalantzarritasuna izenburuarekin ere islatu nahi izan dut. Izenak dioen bezala, dena desagertzen da, dena lausotuta dago, ezer ez dago argi eta finean, ez dakizu ezer. Ez dakizu aurpegi horren atzean emakume bat edo gizon bat da-

goen; ez dakizu berez pertsona bat den edo irudikapen bat; ez dakizu zein den bere adierazpena, serio dagoen, edo irribarretsu...

■ **Oso gustuko duzu, beraz, Leonardo da Vinci eta haren garaikoen lana?**

Bai, Leonardo da Vinci, Miguel Angel... zoragarriak ziren. Nire ustez, Cinquecento artearen historian egon den garai interesgarriena izan da. Nire koadroan garai horrekiko dudan miresmena ere islatu nahi izan dut eta irudiaz gain agertzen diren zenbakiak horren isla dira. Batetik laura agertzen diren zenbakiak irudia zatituta dagoen aldeak islatzen dituzte;

Tutto sfumato margolana artista gazte baten bizitzan ibilbide luze bat izanen denaren ardatza da: Javier Arbizuk Elkarguneak 2002 lehiaketako aurreneko saria eskuratu berri du, pintura sailean, aipatutako lanarekin.

Oraintxe Gaiarre antzokian dago obra.

bosgarrenak, berriz, Cinquecentoari dagokio, eta, nolabait, sakoneko plano islatzen du.

■ **Garai klasikoaren garrantzia gorai patzen duzu, orduan?**

Tira, ez dut eklektikoa izan nahi. Ongi dago denboran atzera egin eta bertze garai batzuetako sustraiak aztertzea. Hori oso baliagarria da, ikerketa horrek

munduan eta oraindik ikasten ari naiz. Oraingo ez dut mugatu nahi neure burua margotzeko estilo bakar batera; ikasi nahi dut, esperimentatu. Gero gero-koak.

■ **Zer teknikaz baliatu zara lana egiteko?**


Aurreneko ordenagailuarekin landu dut obra. Behin eta berriz aritu naiz irudiari buelta eman

gauzak adierazteko modua ere bada. Pintura nirea den zerbait islatzeko euskarria da eta memento jakin batean bertze pertsonak ere ikusten ahal dute zurea den hori. Egiten duzun hori, gainera, denboran irauten du. Hori guztia niretako asko da.

■ **Eta hemendik aitzina zer?**

Uztailaren hasieran Salamanca-

● LANDER F. ARROIABE / ARGAZKI PRESS



soslaia

Javier Arbizu 1984ko urtarrilaren 10ean jaio zen Lizarran. Txiki-txikia zenetik izan du margotzeko zaletasuna. Amak beti margotzen aritzen zela gogorarazten dio orain. Berak «buru karratuak» irudikatzen zituela oroitzen du.

Almudi Kultur Elkartearen egin dituzten pintura ikasketak Jesus Maria Bea irakaslearen eskutik. Lau urte egin ditu bertan eta irakaslearen lana gorai patzen du. «Oso irakasle ona da, zure bidea egiten laguntzen zaitu», dio.

Selektibitatea prestatzen ari da egunotan gaztea eta hurrengo urtean Salamancako Unibertsitatean Arte Ederrak ikasteko asmoa du. Bertan errestituzio espezialitatea egin nahi du.

zure izaera aberasten du. Nolabait, zure aurrekoek egindakoa barneratu egin behar duzu, gero zure ikuspuntua islatu ahal izateko. Nire iduriko, artista guztien oinarrian teknika klasikoak egon behar du, eta ezinbestekoa da teknika hori menperatzea, gero zure bideari ekiteko.

■ **Nola definituko zenuke zure estiloa, beraz?**

Hasiberria naiz pinturaren

nahian eta plano ezberdinak islatzen. Ordenagailua ideiak lantzeko euskarria izan da, hein batean. Gero, behin ideiak gorpuztu zirenean, margotzeari ekin nion, eta bertan nire ideia propioak ere landu ditut.

■ **Zer da zuretzat pintura?**

Eguneroko bizitzan ikusten dituzun gauzetatik ihes egiteko modu bat da. Pintatzeak lasaitu egiten nau eta, nolabait, nire

ra joanen naiz, unibertsitateko atariko proba egitera. Salamanca ikastea gustatuko litzaidake, errestituzio adarrean. Uste dut gaur egun zure pinturaz bizitzea oso zaila dela; beraz, nolabait pinturarekin harremanetan dagoen zerbait ikasi nahi dut. Errestituzioa, behar bada, polita izanen da.

→ Kristina Berasain



Nafar Kronika

Aitor Arotzena

Jon Abrilen epaiketa

Hamar segundoko telebista grabazio bategatik sei urteko espetxe zigorra ezartzen ahal diote Jon Abril lankideari. Eta lankidea orokorrean diot, lerro hauek irakurtzen ahal dituzuen edonoren lankide izan baitzitezkeen Jon: NAFARKARIA-ko artikulua, Ttipi-ttapa telebista eta aldizkari-ko kolaborazioak, *Nabarra* aldizkari-ko bertso tartea, Xorroxin Irratiko *Hitzari hitz* programaren aurkezle eta laguntzaile, *Aizu*, *Argia*, *Bertsolari* eta bertze hainbat komunikabidetan laguntza emandakoa, Nafarroako Bertsozale Elkarte-ko kidea eta Nafarroa nahiz Euskal Herriko bertsolari txapelketetan epaimahaikide izana, Berako Kultur Batzordeko koordinatzailea, haurrentako udalekuen prestatzailea eta hain lerro guttitan sartzen ez diren bertze mila saltsetako perrexila.

Bertze telebista handi guzietan agertu ziren irudiak (Ttipi-ttapan ez, ez baitziren ailegatu) hartzeagatik epaituko dute Jontxito, baina Ttipi-ttapa telebistak ez du nonbait Antena 3 edo Tele5en legitimitaterik. Bihoitzeko kontuetarako lekuri ez duelako? Edo *Gran Hermano* ez duelako emititzen? Baztan Bidasoaldeko *Operación Triunfo* egin beharko dute? Legearen aitzinean denak berdina gara, omen. Duela kasik bi urte, borts milioi pezetako fiantza ordaindu behar izan zuen Jonek, mugaren ondoan bizi denez ihes egiteko arrisku gehiago dagoelako. Denak berdina, bai to! Bere grabazioarekin egin zitezkeen erabilera-epaituko dute Jon. Banu, baluke eta balitz... Noiztik epaitzen da gertatzeke dagoen zerbait? Azkenaldian, ordea, horrelakoak ikustera gaude. Hurrengoan, auskalo!

Epai-keta baino lehen, igande honetan, inguruko kultur taldeek sostengua emanen diote Joni, jaialdi handi batekin, bere herrian. Herriarrek badakite zein lan egin duen Jonek. Badakite errugabea dela eta errugabeak ez duela bere errugabetasuna frogatu beharrik. Omen. Kazetariak Euskal Herriko hiriburuetan bilduko dira epaiketa egunean. Hauek badakite beraien lana esku-bide osoz betetzeko adierazpen askatasuna dutela. O(A)men.

gure aukerak

MUSIKA

- ▶ **Doneztebe:** Doneztebe, Altsasu, Leitza eta Lekarozko ikas-tetxeetako ikasleen kontzertua izanen da gaur, 17:30ean, pilotalekuan.
- ▶ **Iruñea:** M-Clan taldea gaur, 22:00etan, NUPeko pabiloian.
- ▶ **Zangoza:** Gaur Marañia taldea 23:00etan, Blues tabernan, eta Anabasan taldea 00:00etan, Espejo tabernan.
- ▶ **Zizur Nagusia:** Bihar jota jaialdia egingen dute kultur etxean, 19:00etan. Hasieran, Jota Eskolako hiru bikotek eta bost bakarlarik kantatuko dute. Ondoren, Los Pamplonicas taldearen emanaldia izanen da.
- ▶ **Aurizberri:** Tilin Tolon country musika taldea bihar, 22:00etan, frontoian.
- ▶ **Aitzoain:** Marea eta Bathoo taldeak bihar, 22:30ean, Artaian.
- ▶ **Iruñea:** Hello Cuca eta Bananas taldeak bihar, 23:30ean, Cotton Club tabernan.
- ▶ **Etzarri-Aranatz:** Enrike Zelaia akordeoilaria igandean, 19:00etan, plazan.
- ▶ **Burlata:** Berserk taldea asteartean, 20:30ean, Black Rose tabernan.

ZINEMA

- ▶ **Zubieta:** Bihar *Chicken Run* marrazki bizidunetako filma emanen dute, 20:00etan.

ANTZERKIA

- ▶ **Etzarri-Aranatz:** *Izar Hotsa* planetario ibiltaria eskainiko dute gaur, 19:00etan eta 20:30ean, pilotalekuan.
- ▶ **Lizarr:** Jose Mari Karrerek *Todo lo que tiene nombre existe. Los vascos en el pais de las maravillas* kontakizuna eskainiko du gaur, 20:00etan, La Bota elkartearen.

- ▶ **Urdiain:** Kollins Klown taldeak *Martzelina oiloa* eta *Txokolatezko etxetxo* lanak eskainiko ditu bihar, 18:00etan, pilotalekuan.

KIROLA

- ▶ **Altsasu:** Mendi bizikletan egiteko, VII. Zeharkaldia egingen dute igandean, 43,5 kilometrokoa. Ez da lehiaketa. Abiatzea 09:15ean izanen da, Foruen plazatik. Izena ordubete lehenago eman behar da.

HITZALDIAK

- ▶ **Erronkari:** EHEko kide batek *Globalizazioa eta euskara* izenburuko hitzaldia eskainiko du ostegunean, 19:30ean, Ibar Etxean.
- ▶ **Iruñea:** Antonio Arenal argazkilariak *Bideko Oharrak* liburua aurkeztuko du gaur, 20:00etan, Zabaldin.

ERAKUSKETAK

- ▶ **Burlata:** Miniatura lanen erakusketa izanen da Joakin Azkarate kultur aretoan hilaren 16a arte.
- ▶ **Mutiloagoiti:** *Matematikekin jolasean* erakusketa didaktikoa ekainaren 17a arte bisitatzeko ahal da kultur etxean, astelehenetik ostiralerara 17:00etatik 21:00etara, larunbatetan 19:00etatik 21:00etara eta igandetan 12:00etatik 14:00etara.
- ▶ **Iruñea:** Mikel Alvarez mendizalearen *Everest, un sueño hecho realidad* argazki erakusketa Maisonnave hoteleko Iruña fotogalerian izanen da hilaren 18a arte.
- ▶ **Iruñea:** Blanca Correderas argentinarraren *Retrospectiva de una mujer inmigrante* erakusketa zabaldiko tetegian ikusten ahal da ekainaren 28a arte.

BESTELAKOAK

- ▶ **Noain:** Elortzibarko Euskararen II. Eguna ospatuko dute bihar: dantzarien eta fanfarrearen kalejira (10:30); musika eskolako ikasleen emanaldia (12:00); Sakanako emakumeen sokati-

ra taldea (13:00); herri bazkaria Oskar eta Aritz bertsolari-ekin (14:00); pailazoak San Miguel kirodegian (17:00).
▶ **Berriozar:** Desarrollismoari buruzko tailerra egingen dute bihar, 10:30ean, Zulo alai elkartearen.

Asteko erakusketa



● EGUNKARIA

Natxo Barberena

Non: Uharteko kultur etxean.
Noiz arte: Ekainaren 8a arte.
Ordutegia: Gaur 16:00etatik 21:00etara eta bihar 10:00etatik 14:00etara.